

EGUBERRIAK NAFARROAN

Negu erdiko egun ederrak datoz. Eguberriak. Urtero gero eta aguroago asten dira dendariak beraien produktoak eskeintzen. Segidan nabaritzen da badatorrela Olenzero, Urte zaar-urte berriko jaia eta Erregeak. Baina, garrantzitsuena da mundo onetara Jesus Jainkoa guregan heldu izan zela egun orietan.

Orain kontatuko dizkizuet nolakoak ziren nire aurzaroko Eguberriak, Nafarroako goi aldeko erri txiki batean. Egun, bearbada jende geingoeek atzendurik dituzten oiturak.

Lehenago, egun auetako festa andiena egiten zen aurtxoei begiratzuz. Orain, zoritxarrez, alderdi hauetako erri askotan ez dago aurrik ere, eta uste dut ez dituztela aintbertzeko ospakizunik eginen.

Ala ba, abenduaren 24ko gauean, eta Gauerdiko Meza baino leen, aite zenak bidaltzen zigun larrañera egurrak eske. Andienak eman bear zuen egur andi bat, erdikoak txikixagoa eta txikiek txiki bat bakoitzak. Baztarreko andia San Jose zen, erdikoa Ama Birgiña eta txikia Jesus aurra. Ori zen jartzen genuen belena, sutondoan. Gero aite asten zen kontuak kontatzen, A!, zenbat eta zenbat zekizkien!!. Beti, eta leenbizikoa kontatzen ziguna zen Olenzeroarena: “Mendian bizi zen gizona ikatz egiten, baina Eguberri gauean errira zetorren puskak artzera. Puska guztiak artu eta argitu baino leen bueltatzen zen bere txabolara, urrengo urte arte”.

Eta Urte Berriko festa. Orduan ez zen egiten gauez ezer. Festa andia zen baina eguberrikoa, egunez. Egun horretan goiz goizetik asten ginen boltsak prestatzen etxez-etxe “urtatxak” artzera joan bear zelako. Eta karrike guzie barna, eta etxez-etxe. Au zen kantatzen genuen kanta:

“Xiribiri, dagoneko
Urte berri eguneko:

Aingeruek gara,
zerutik heldu gara
boltsak battugu
dirurik ez dugu

Urtatxak, urtatxak
Bear dittugu.”

Errege bezpera ere ospatzen zen, Haiek ekartzen baizituzten opariak. Xuarbeko mutiko andiak etortzen ziren Ilarregira argiekin. Kalabazeei argizari bat sartzen zioten. Eta yoareak eta pulunpak ere bai zeramaten. Pulunpa andiak zuten arroitu ugari ateratzen zutenak bideertzetan.

Oitura auen berriak bidaltzen dizkiodanean ZER irakurle adiskideoi, Eguberri ederrak opa dizkizuet.

XOLE ERBITI

EUSKALERRIA ERDIAROAN

Gauza gitxi dakigu gure erdiaroko edestiari buruz: IX gizaldian agertzen dira lenengoz Bizkaia eta Araba izenak eta XI'ean Gipuzkoa.

Euskaldunak auzoetan alkartuta bizi ziran, ermita baten babespean eta euren arduraduna urtero aukeratzen ebela. Ez dakigu noiz asi ziran goragoko maillako batzarrak, Gernika'koak edo.

Auzoak 4'tik 10 etxerakoak ziran eta ibarretan alkartzen ziran. Araba'n kuadrillak ziran eta Bizkaia'n merinaldeak.

XIII gizalditik daukaguz baserriak eta euskaldunak onak ziran salerosketan eta itxas-lanetan. XI gizalditik XIII'ra atzeratuak gara baiña XIV gizaldian, guztiai esaten jaken bizkaitarrak, eta oso trebeak agertzen dira Europa'ko kai guztietan. Ori izan zaitekeen aldi orretan 88 uri sortzen dira, 21 Bizkaia'n.

Olazar'tar Martin'ek